

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hamazazpiko abenduaren 19an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN
JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezeko idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du.

1.-AURREKO AKTEN ONARPENA

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2017ko azaroaren 28ko ohiko aktan eta abenduaren 13ko aparteko batzarreko aktan, ia norbaitek aldaketa bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez aktak onartzea erabaki du.

2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezten

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

1	EVOLUZIONA. Urumea arnastu	180,77 €
2	FERNANDO GOIA. Mendiko Land Roverrari, azaroaren 29an gasoila	40,00 €
3	ITSASO LUJANBIO. Jumpfit eta pilates-eko baloiak	103,87 €
4	CAMPOS JF. Benenoa	184,22 €
5	DINDAIA. Goxali egitasmoaren azaroko faktura	738,69 €
6	PEDRO M^a GORROTXATEGI y Otro Cb. Aieka sonorizatzea, Ansa ahizpak	605,00 €
7	PELLO AÑORGA. Ipuin kontaketa, azaroaren 12an	306,00 €
8	CEFERINO APEZETXEA. Remolken pilotoak	43,61 €
9	CEFERINO APEZETXEA. Autobusa herritik kantera-ra, 2017/11/04	140,00 €
10	IBAIPROLIM, S.L. Dermosol, eskuak garbitzeko desinfektantea. Eskola	78,17 €
11	KAXERNA. EITB mikroemisorea etaTPC aren konponketa (Alkasoaldea)	290,00 €
12	KOPY LEKU. Fotokopiodoraren mantenimentua, azarokoa	262,03 €
13	BIG MAT MENDITXURI. Ferirako materiala	34,61 €
14	TALLERES ASTIZ. Suhiltzaileen Land Roverraren kabestrantea	1.549,47 €
15	OIALUME GARRAIOAK. Feria eguneko aulki eta mahaiak Oiartzunera	181,50 €
16	ZELAI. Ferirako kañoi eta semaforoan alokairua	496,10 €
17	AMAIA UITZI. Feria eguneko bazkariko txartelak (erdiak)	409,50 €

18	BPXPORT. Jumfit eta pilateseko azaroko saioak	1.256,56 €
19	OXEGUARDA. Artantxuriketan emanaldia ondorengo afaria	66,00 €
20	LYRECO. Udalako materiala, azaroko faktura	298,64 €
21	URDIÑOLA. Eskolako jangelako grifoa eta medikun etxebizitzako mekanismo	262,57 €
22	LYRECO. Eskolako komoneko papera	29,23 €
23	CORREOS. Azaroko korreo gastua	56,87 €
24	ARGYSAN. Kloroa	639,49 €

Ordaindu beharreko gastuak: 8.252,90€

Gastu helbideratuak

BIDANE HUICI ANTON. Xalto eskolaren garbiketa lanak, azarokoa	1.576,12 €
MARISOL APEZETXEA. Udal eraikinen garbiketa lanak, azaroko faktura	1.007,22 €
NOSTRATEC. Zabortegieraren itxieraren 2. zertifikazioa. Obra zuzendaritza	11.265,10 €
OBRAMAS 9002, S.L. Zabortegiaren itxieraren 2. zertifikazioa.	423.527,08 €
ORTIZ DE ELGUEA. Azaroko aholkularitza	198,98 €
BIXENTE SETOAIN. FERIA eguneko musika	250,00 €
LUCIA ETXEBERRIA. Abenduaren 22ko hitzaldia	100,00 €
FERIA. Azinden giak	57,48 €
OIHANA INSAUSTI. Eskulanak ikastaroaren azaroko faktura	356,25 €
GIZARTE SEGURANTZA. Urriko gizarte segurantzak	3.795,49 €
GOIENER. 2017/11/23tik 2017/12/13ra	1.842,47 €
VODAFONE. 2017/11/23tik 2017/12/13ra	397,96 €
MOVISTAR. 2017/11/23tik 2017/12/13ra	4,60 €

Helbideratutako gastuak: 444.378,75€

Guztira Gastuak: 452.631,65€

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea eta helbideratuak onartzea erabaki du aho batez, salbu Evoluzionaria-ren 180,77€tako faktura

Ondoren, Alkateak, diru sarreraren berri eman du

ERRENTAK. Udal eraikinen errenta, abendukoa	225,49 €
ZERGADUNAK. Kontribuzioa. Helbideratu gabeak	207,20 €
ZERGADUNAK. Kontribuzioa. Helbideratuak	66.798,21 €
ZERGADUNAK. Hilerriko tasa: Aniceto Navarro	25,00 €
ZERGADUNAK. Garazi Albisu. Ganasako txostena	90,75 €
NAFARROAKO GOBERNUA. Plazako zolaketa lanen dirulaguntza.Likidazioa	27.504,24 €
NAFARROAKO GOBERNUA. Zabortegiko itxieraren dirulaguntza	209.338,95 €

GESERLOCAL. Azaroko bilketa ejekutiboa	147,71 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, urriko faktura	543,00 €
ZUBIMUXU. Aterpeko egonaldiak, azaroko faktura	180,00 €
ZUBIMUXU. Berotza, S.L. Pellet-aren zakuaren kalte ordaina	631,51 €

Guztira dirusarrerak: 305.692,06€

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez.

3.INFORMAZIOA

3.1.NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA.

Batzar deialdia jaso zen 2017ko abenduaren 18rako, Lekunberriko Udaletxeko Batzar Aretoan

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.2.LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA

Bilera deialdia egin zen, abenduaren 14rako, Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.3.NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA, S.A.

Goizuetako 4 poligonoko 503 partzelan, Mendialdea Mankomunitateak sustatu duen "Garbigune" proiektuaren jarduera sailkatuaren aldeko txostena jaso da.

Udalbatza jakinaren gainenean gelditu da.

3.4.EUSKARABIDEA

Euskarabideako Zuzendari Kudeatzailearen 2017ko abenduaren 14ko 74E Ebazpenaren bidez, Goizuetako Udalaren alde 1097,04€tako diru-laguntza ordaintzea ebatzi da, Udal esparruan euskara erabiltzeko eta sustatzeko 2017ko diru-laguntza deialdiari dagokiona.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.5.LANDA GARAPEN, INGURUGIRO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA. Ekonomia Zirkular eta Uraren Zerbitzua

Goizuetako Udalari jakinarazi zaio, , Juan Jose Elizalde Usarragak sustatu duen jarduera sailkatuaren funtsezko aldaketa espedienteari sarrera eman zaiola departamentuan. Udalak egin behartako izapidetzak egin ondoren, eskatzaileak eskaera egin eta 2 hilabeteko epean, departamentuak espedientearen tramitazioarekin jarraituko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.6.ESPANIAKO UDALERRI ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOA.

Errefuxiatu eta inmigranteen integrazio egoera jasotzen duen 2017 urteko txostena osatzeko, inkesta bat jaso da Goizuetako Udalean.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

3.7.NAFARROAKO FORUZAINGOA

Joan den 2017ko azaroan egindako salaketa eta txostena jaso da Goizuetako Udalean. Salaketa hau Jesus Maria Loiarte Etxeberriari ezarri zaio, bi zakur, baldintza higieniko sanitario egokietan ez edukitzeagatik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.8.ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIOLA

2017ko urtarrilaren 1eko datarekin, ofizialki deklaratu diren biztanleriaren datuak jaso dira, Goizuetan, 717 biztanle deklaratu dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.9.NAFARROAKO ONDASUNAREN DEFENTSARAKO PLATAFORMA.

Abenduaren 16an Burlatan ospatuko den bilerako deialdia jaso da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.10.TOKI AGENDEN ETA LANKIDETZAREN BULEGOA

Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegotik honako informazioa jaso da:

-Nafarroako Tokiko Garapen Jasangarriko Jardunbide Egokietarako Sariaren deialdia abian dela.

-“Energia Garak” toki entitateei begira eginiko adierazpena: “Nafarroako herri administrazioentzat energia elektriko berde, berriztagarri eta jasangarrien proposamena”.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.11.LANDA GARAPEN, INGURUGIRO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA.

Bi diru-laguntza deialdi onartu direla jakinarazi zaio Goizuetako Udalari:

-“Convocatoria 2018 de las ayudas de la submedida 6.2. Creación de empresas para actividades no agrarias en zonas rurales”

-“Convocatoria 2018 de las ayudas de la submedida 6.4. Inversiones en la creación y el desarrollo de actividades no agrarias.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

3.12.NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEEN FEDERAZIOA.

NUKF-tik honako informazioa jaso da:

-2017ko azaroaren 28an eginiko batzorde betearazlean aztertutako gaiak

-Abenduaren 15erako Batzar Nagusirako deialdia.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

3.13.KANTAUURIKO UR KONFEDARAZIOA

Kantauriko Ur Konfederazioko 2017ko azaroaren 23ko Ebazpen bidez, baimendu egin zaio Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko Departamentuari, NA4150 errepedeko 18 kilometroan eskollera bat egitea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4.-ESKAERAK

4.1.PILI PERURENA GOIZUETA. Azindentzako itxitura probisional egiteko baimen eskaera.

Pili Perurena Goizuetari, Goizuetako Udalera zuzendu da, 2 poligonoko 306 partzelan azindentzako behin behineko itxitura bat egin nahi duela (saneamenduak, bakunazioak eta halako lanak egiteko). Itxitura egin nahi den lurzattia herrilurra da, eta aldi berean Jose Maria Salaberria Zubirik gaztañeri aprobetxamendua egiaztatzen duen eskritura aurkeztu du udalean, eta Pilar Perurena Goizuetari baimena eman dio, 2017ko abenduaren 11ko idatzi bidez, 2 poligonoko 306 partzelan behin behineko itxitura egiteko.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, eskatutako behin behineko itxitura egiteko baimena ematea Pili Perurena Goizuetari. Momentu honetan ematen den erabilera honek ez du bestelako eskubiderik sortuko, eta iralekuen hitzarmena egiten denean, itxitura erretiratu egin beharko da, eskatzailearen karguko izango delarik erretiratzea.

4.2.-GURASOAK” GURASO ELKARTEA. 2017 urteko Olentzero Eguneko eskaerak

Ainara Narvarte, “Gurasoak” Guraso Elkarteko Idazkaria, Elkartearen izenean, Goizuetako Udalera zuzendu da eta datorren abenduaren 24ean Olentzeroren egunaren antolaketa dela eta udalari eskatzen zaizkio: Goizez Herriko Plaza eta kaleetan ibiltzeko baimena; arratsaldean Txinoko plaza kotxez libre izatea eta herriko kaleetan ibiltzeko baimena; Lubineko frontoiaren erabilera egun guztian zehar; estalpea Asinkotik frontoira ekartzea; eta arratsaldeko itxaferoa. Aldi berean musika ekipoa erabiliko dutela jakinarazten zaio udalari.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du:

1.-Abenduaren 24ean goizez Herriko Plaza eta Kaleetan zehar Olentzerokin ibiltzeko baimena ematea, beti ere trafikoaren ordenazioaz antolatzaileak arduratu beharko dute, ahalik eta eragozpen gutxien sortuz.

2.-Txino Auzoan egingo den Olentzeroren etorrerarako kotxez libre egotea udala arduratuko da

3.-Lubineko Pilota Plaza abenduaren 24 egun guztian erabiltzeko baimena ematea, egun berean dena jaso, garbitua eta baldintza egokietan utzi beharko delarik. Antolatzaileen ardura izango da, bertan gertatu daitezkeen kalteen konponketak, eta bestelako erantzukizunak.

4.-Estalpearen garraioaz ez da udala arduratuko antolatzaile berak arduratu beharko dute, udalak beraien esku atoa eta Land Rover-a jarriko dituelarik garraioa egiteko. Gidaria udal langile bat edo ta ordezkari bat izan beharko du.

5.-Itxaferoa antolatzaileen esku jarriko du udalak eskura dauzkan neurrian. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezala hartu beharko dira inolako ezbeharririk gerta ez dadin.

6.-Pilota Plazako eta Asinkoko giltza udalean jaso eta Udalara bueltatu beharko da.

7.-Olentzero egunaren ospakizunetan sortutako edozein erantzukizun antolatzaileen ardurakoa izango da.

4.3.-GURASOAK” GURASO ELKARTEA. 2018 urteko Errege Eguneko eskaerak

Ainara Narvarte, “Gurasoak” Guraso Elkarteko Idazkaria, Elkartearen izenean, Goizuetako Udalera zuzendau da eta datorren urtarrilaren 5ean Errege bezpera egunaren antolaketa dela eta udalari eskatzen zaizkio: Lubineko frontoiaren erabilera egun guztian zehar; Asinko eta Frontoiaren artean dauden kaleak erabiltzeko baimena eta desfile garaian ez egotea kotxerik kale hauetan; estalpea, lastoa eta 4 mahai handi Lubineko frontoira ekartzera; Asinkoko lokalaren erabilera urtarrilaren 4ean dagokion materiala uzteko eta urtarrilaren 5ean jendea janzteko eta karrozak prestatzeko; eta arratsaldeko itxaferoa. Aldi berean musika ekipoa erabiliko dutela jakinarazten zaio udalari.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du:

1.- Lubineko Pilota Plaza urtarrilaren 5ean egun guztian erabiltzeko baimena ematea, egun berean dena jaso, garbitua eta baldintza egokietan utzi beharko delarik. Antolatzaileen ardura izango da, bertan gertatu daitezkeen kalteen konponketak, eta bestelako erantzukizunak.

2.- Urtarrilaren 5ean desfilea egiteko Asinko eta frontoia bitarteko kaleak (Kale Nagusia) erabiltzeko baimena ematea, beti ere trafikoaren ordenazioaz antolatzaileak arduratu beharko dutelarik, ahalik eta eragozpen gutxien sortuz.

3.-Estalpea, lastoa eta 4 mahairen garraioaz ez da udala arduratuko, antolatzaile berak arduratu beharko dute, udalak beraien esku atoaia eta Land Rover-a jarriko dituelarik garraioa egiteko. Gidaria udal langile bat edo ta ordezkari bat izan beharko du.

4.- Asinkoko lokala urtarrilaren 4ean eta 5ean erabiltzeko baimena ematea, erabili ondoren jasoa, garbitua eta baldintza egokietan utzi beharko delarik. Antolatzaileen ardura izango da, bertan gertatu daitezkeen kalteen konponketak, eta bestelako erantzukizunak.

5.-Itxaferoa antolatzaileen esku jarriko du Udalak, eskura dauzkan neurrian. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezala hartu beharko dira inolako ezbeharririk gerta ez dadin.

6.-Pilota Plazako eta Asinkoko giltza udalean jaso eta Udalara bueltatu beharko da.

7.-Errege bezpera eguneko ospakizunetan sortutako edozein erantzukizun antolatzaileen ardurakoa izango da.

4.4.JOSUNE NARBARTE ETXEGIA. Etxe aurreko zuhaitza kimatzeko eskaera

Josune Narbarte Etxegia Goizuetako Udalera zuzendu da eta adierazi du, bere etxe aurreko jardinean, zuhaitz bat dagoela eta handi xamarra dela, etxeke bista guztiak kentzen dizkiona. Eskatzen du, ahal izan ezker bere garaian kimatzeko

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, eta egitatea konprobatuta, aho batez erabaki du, udalak dagokion garaian, zuhaitzaren kimaketa egingo duela.

5.-2018KO UDAL TASAK ETA PREZIO PUBLIOAK

Goizuetako Udalbatzak aho batez erabaki du, 2018 urterako 2017an onartu ziren Udal tasa eta prezio publiko berdinak aplikatzea, hau da:

*URA

-Urteko tasa: tarifa indibiduala 50€,

-Urteko tasa: tarifa industrial eta merkatala 100€

*SANEAMENDU KANONA: Nilsak 2017rako jartzen duen tarifa

*AGIRIAK EMAN ETA TRAMITATZEKO tasak

- Fotokopiak DIN A4:0,10€
- Fotokopiak DIN A3:0,20€
- Fotokopiak Koloretan DIN A4:0,50€
- Fotokopiak Koloretan DIN A3:1€
- Planoen fotokopiak (katastroa, Arau Subsidiarioak eta bestelakoak):1€
- Zedula partzelarioak:2€
- Fax- jasotzea (orri bakoitzeko):0.10€
- Fax- bidaltzea (Nafarroa barnean, orri bakoitzeko): Orri bat 1,50€, bi orri 3,00€, eta hirugarren orritik aurrera 1€ orri bakoitzeko
- Fax- bidaltzea (Nafarroatik kanpora, orri bakoitzeko):Orri bat 2€, bi orri 4€, eta hirugarren orritik aurrera 1,50€ orri bakoitzeko
- Ziurtagiriak:2€
- Artxiboa kontsultatzea behar duten ziurtagiriak:8.00€
- Errezibo bikoizketak:1,50€
- Ezgartuen aparkatzeko txartelak ematea eta berritzea:15,00
- Arma txartelak:4.00€
- Ezkontza Zibilak: Ezkonkideetako bat Goizuetan erroldatua dagoenean:70,00€
- Ezkontza Zibilak: Bi ezkonkideak Goizuetan erroldatuak ez daudenean:120.00€
- Jarduera sailkatu baimena:30.00€
- Irekiera baimena:30.00€
- Jarduera sailkatu eta irekiera baimenen eskualdatzea:60.00€

*UDAL HILERRIAREN erabilera eta hura erabiltzeko eta hartan zerbitzu egiteko eskubide eta tasa

Lurrean ehorztea:

Goizuetan erroldatuak eta jaiok: 160
Besteak: 400euro.

Errautsak:

Goizuetan erroldatuak eta jaiok: 25euro
Besteak: 200 euro.

*BELAR TASA eta ZAKURRAK. 2016 urteko kuota aplikatuko da

*UDAL RETROESKABADORA ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA.
122€/eguneko gehi gasoila

*HERRILURREN APROBETXAMENDU TASA. 2016 Urteko kuota aplikatuko da

*UDAL GIMNASIOAREN ERABILERA: Pertsona bakoitzeko 25€ urteko

Erabaki honek 2018 urteko urtarrilaren batean hartuko du indarra

Hau guztia jakinaraziko da, eta behar diren ondorioetarako, Udaleko iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6.-2018KO UDAL ZERGEN ONARPENA

Goizuetako Udalbatzak aho batez erabaki du, 2018 urterako 2017an onartu ziren zerga tipo berdinak aplikatzea, hau da:

-1.1.Hirilurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa: katastroko balioaren gaineko % 0,50 izango da

-1.2.Landalurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa: katastroko balioaren gaineko % 0,80 a izango da

-1.3.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko udal zergaren karga-tasa: exekuzio materialaren % 4,5 a izango da.

-1.4.Hirilurraren balio igoeraren gaineko zergan, 2/95 Foru Legearen ezarritako gutxieneko portzentajeak aplikatuko dira

-1.5.Jarduera ekonomikoen zerga. Legeak onesten duena izango da

-1.6.Zirkulazio zerga. Legeak onesten duena izango da

Erabaki honek 2018 urteko urtarrilaren batean hartuko du indarra.

Hau guztia jakinaraziko da, eta behar diren ondorioetarako, Udaleko iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7. -NEKAZARITZA POLITIKA ERKIDEAREKIN (PAC) ERLAZIONATUTAKO ESKAERAK EGITEKO EPE IREKIERA.

Goizuetako Udalaren herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 30 garren artikulua agintzen duenaren arabera, udalbatzak aho batez erabaki du 15 egun balioduneko epea irekitzea, 2018ko urtarrilaren 23arte, intereseko duenak herrilurretako larreen aprobetxamendua eskatu ahal izateko.

8.-MOZIO.GDEIM IZIKEKO SAHARAR PRESO POLITIKOEI EZARRITAKO ZIGOR BIDEGABE ETA ILEGALEEN AURKAKO MOZIOA.

Nafarroa Sahararekin Plataformak, honako Mozioa aurkeztu du osoko bilkuran onartu izan dadian.

Marokoko Saleko Apelazio Auzitegi Gorenak zigor latz eta bidegabeak ezarri dizkie 2010ean Gdeim Izekeko duintasunaren kanpalekuan parte-hartzearen epaitutako 24 preso politikoetatik 21i, zenbait kasutan bizi osorako espetxe zigorra ebatzi duelarik: zortzi akusaturi bizi osorako espetxe zigorra ezarri die, hiru laguni 30 urteko espetxealdira, beste bost laguni 25 urtekoa eta hiru gehiagori 20 urtekoa. Bakarrik bi saharar preso libre geratuko dira haiei ezarritako kondenak dagoeneko giltzapean igarotako denbora baino laburragoak direlako.

Epaiketari 2016ko abenduan ekin zitzaion eta Auzitegi Zibil batean burutu da, 2013an egindako epaiketa militarrean haien aurka ezarritako zigorrak Kasazio Auzitegiak froga faltagatik epaiketa baliogabetu eta berriz egiteko agindu ondoren.

Epaiketetan izan diren nazioarteko behatzaileek -Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusia, Human Rights Watch, International Amnesty, Robert F. Kennedy Center, besteak beste-, salatu dutenez, irregulartasun asko izan dira eta prozesua berme juridiko nahikorik gabe egin da; horrenbestez, ez dute epaiketa garden eta bidezkotzat jo.

Behatzaileek Saleko Auzitegia lurraldetik kanpoko epaitegitzat jo dute, gertakariak epaitzeko eskumenik gabea, Mendebaldeko Saharako Lurralde Ez Autonomoaren gainean jurisdikziorik ez duelako.

Halaber, gogorarazi dutenez, 2016ko azaroan NBEko Torturaren aurkako Batzordeak ondorioztatu zuen Marokok Torturaren aurkako Konbentzioa urratu zuela zigortutakoetako baten kasuan, Naâma Asfari, eta adierazi zuen Auzitegiak ezin zituela berriz ere bere epaiak oinarritu tortura edo tratu txarren bidez lortutako aitortzetan. Horiek horrela, eta egindako salaketei erantzunez, 2016ko urrian Espainiako Auzitegi Nazionalak iheslari politikoko estatusa eman zion Marokoko Auzitegi Militarrek errebeloan epaitu eta bizi osorako espetxealdira zigortutako aktibista Hassanna Aaliari.

Hori dela eta,

Mendebaldeko Sahara atzerriko okupazio baten menpe dagoen eta nazioartean onartutako kudeaketa agintaritzaz ez duen Lurralde Ez Autonomo bakarra izanik,

Ginebrako Hitzarmenetako 2. artikulua erekin bat, Marokoren okupazio ilegalak nazioarteko eskubide humanitarioa ezartzea dakarrela kontuan harturik,

MINURSOren (Nazio Batuen Misioa Mendebaldeko Sahararen Erreferendumerako) mandatuko eskumenen artean giza eskubideak kontrolatzea ez dagoela gogoan harturik,

Espainiako Gobernuari eskatzen diogu:

! *Epaiketak baliogabetzea eskatzea, gertakariak Mendebaldeko Saharan izan zirelako, deskolonizazioaren zain dagoen eta Marokok legez kontra okupatutako Lurralde Ez Autonomoan, eta horrenbestez, aipatutako Auzitegiaren jurisdikzio, eskumen eta subiranotasunetik kanpo.*

! *Ikerketa independentea eskatzea, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren esparruan, Gdeim Izikeko kanpalekua eraistean gertatutakoak argitzeko eta bidegabeki zigortutako lagunen egoera aztertzeko, bereziki nazioarteko behatzaileek tortura edo tratu txarren bidez lortutako aitortzen inguruan salatutako irregulartasunak.*

! *Mendebaldeko Saharan gertatu ohi diren eta argi eta garbi egiaztatu diren giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen urraketak arbuiatzea.*

! *Espainiako Gobernuak Marokoko Erresumarekin egiten dituen harreman eta jardun guztietan eskaera hauek mahairatzea.*

! *Erabaki hau ondokoei jakinaraztea:*

EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTETZA

EUROPAKO KONTSEILUKO PRESIDENTETZA

EUROPAKO BATZORDEA

*KANPO HARREMANETARAKO ETA SEGURTASUN POLITIKORAKO EUROPAKO BATZORDEKIDEA,
Federica Mogherini*

ESPAINIAKO ERREGE ETXEA

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

ESPAINIAKO GOBERNUKO PRESIDENTETZA

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

ESPAINIAKO KANPO HARREMANETARAKO MINISTERIOA

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

ESPAINIAKO ORDEZKARITZA IRAUNKORRA NAZIO BATUETAN

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

SENATUKO ETA KONGRESUKO PARLAMENTU-TALDEAK

SAHARAKO ORDEZKARITZA ESPAINIAN

MAROKOKO ENBAXADA ESPAINIAN

CEAS- SAHARA

c/Pez, 27-1ªdcha. 28004 Madrid

Udalbatzak mozioa aho batez onartu du

9.-4 POLIGONOKO 503 PARTZELAREN ZATI BATEN DOHAKO ZESIOA, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAREN ALDE.

Mendialde Mankomunitatearen Lehendakari ordea, 2017ko urriaren 9ko idatzi bidez, Goizuetako Udalera zuzendu da, Goizuetako 4 poligonoko 503 partzelan doako zesioa eskatuz, bertan Mankomunitatearen helburua den garbigune puntua kokatzeko.

Mendialdea Mankomunitatea toki entitatea kontsideratzen da, administrazioa alegia, bere objektua, bera osatzen duten udalerrietako Hiri Hondakin Solidoen bilketa eta tratamendua izanik. Objektu honen harira, bizilagunen onuraren aldeko den erabilera publikoko eta interes sozialeko garbigune proiektua sustatu nahi du, garbigunearen kokapena Goizuetako udalarena den 4 poligonoko 503 partzela izakin

Udalak honakoak hartu ditu kontuan: Mendialdea Mankomunitatea administrazio publikoa dela, eta haren helburua, Goizuetan garbigunea jarriaz, bizilagunen onuraren aldeko den erabilera publikoko eta interes sozialeko dela

Udalbatzak, guzti hau kontutan izanik aho batez erabaki du:

-Garbigune Proiektuan aurreikusten diren 4 poligonoko 503 partzelako 190 metro karraturen erabilera, Mendialdea Mankomunitateari dohainik ematea 20 urtetarako. (Cesión Gratuita de uso de bien patrimonial). Erabilera hau Mendialdea Mankomunitateari garbigune puntua eraikitzeke ematen da, eta beti Mankomunitatearen helburuetara baldintzatua izan beharko du erabilera hau. Hala ez balitz Udalak partzelaren erabilera bereganatzeko eskubidea izango du, sinatzen den kontratuari amaiera emanez.

-Erabaki hau dagokion kontratuan isladatuko da, eta bertan garatuko dira doako zesio honen baldintza zehatzak. Kontratu hau egiteko ahalmena Alkateak izango du.

10.-2017KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 03/2017. HASIERAKO ONARPENA

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 eta 44 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 eta 13 oinarrietan agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2017ko ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontu-hartzailearen txostenean oinarritzen da:

2017ko urteko aurrekontuaren 03 aldaketa modu honetan egiten da

KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.

Miriam Arozena San Miguelek, Goizuetako Udaleko Ordezko Idazkari-kontuhartzailea naizen honek, 2/1.995, martxoaren 10eko, Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 270/1.998, irailaren 21eko, Foru Dekretuak, 2./1.995 Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duenak agintzen duenaren arabera, txosten hau egiten dut:

TXOSTENA

Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, kreditu berezi eta kreditu gehigarri bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea

2017 urteko aurrekontuaren aldaketa modu honetan egiten da:

AURREKONTUAREN ALDAKETAK

* Kreditu berezia: Kontusaila 1.1350.629003 Suhiltzaileen Inbertsioak. Zenbatekoa: 900 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 900,00€

* Kreditu berezia: Kontusaila 1.9200.2270202 Udaleko igogailu proiektuaren idazketa eta zuzendaritza. Zenbatekoa: 7.343,73 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 7.343,73€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila 1.9200.2120004 Asinko Pabelloiko argi indar konponketa lanak. Zenbatekoa: 5.729,63 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 5.729,63€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.2311.4630001 Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Zenbatekoa: 7.223,88 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 7.223,88€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.9200.6260001 Ekipo Informatikoen Berriztatzea. Zenbatekoa: 2.765,10 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 2.765,10€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.1650.2130001 Argiteri publikoaren konponketa eta mantenimendua. Zenbatekoa: 1.125,00 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 1.125,00€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.1650.2210001 Argiteri publikoaren kontsumoa. Zenbatekoa: 1.325,00 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 1.325,00€

* Kreditu gehigarria: Kontusaila. 1.4390.4820002 Cederna-Garalur. Zenbatekoa: 1.778,00 €

Honela finantzatzen da:

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 1.778,00€

Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:

- 1.-Udalbatzak behin behineko onarpena
- 2.-Jendaurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.
- 3.-Erreklamazioak egongo balira, Udalbatzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.
- 4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.
- 5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da

Beharrezko ondoriotarako,

Goizuetan, 2017ko abenduaren 13an

IDAZKARIA.

Sin: Miriam Arozena San Miguel

Udalbatzak, egin beharreko aldaketak aztertu ondoren, aho batez, 2016 ekitaldiko aurrekontuaren 03/2017 aldaketei, hasierako onarpena ematea erabaki du, aldi berean legeak agintzen dituen izapidetzak egitea erabaki da.

11.-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2017- 172tik 177ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

172 zenbakia: Feri Egunean, tabernen ordutegiaren luzapena

173 zenbakia: Jose Manuel Muñoz Andrade, eskolako jangela arratsaldean erabiltzeko baimena, haurrak eskolako lanak egiteko

174 zenbakia: Basauntz Ehiza Elkarteak, abenduaren 9an bilera egiteko Ganbara erabiltzeko baimena.

175 zenbakia: Kristina Urrutia, Euskara Mankomunitatearen izenean, abenduaren 13an bilera egiteko Batzar Aretoa erabiltzeko baimena

176 zenbakia: Joseba Xabier Ansa Zubieta, Juanikotenea etxeko lehenengo solairuko balkoiko baldosak aldatzeko obra baimena

12.-ESKARI ETA GALDERAK

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut